

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa xehatua, zein Elorriaga menpeko toki erakundeko 42.ean dagoen lursail baten –0059-2116-2009-0006-0001-0001 katastro-erreferentzia duena– zati bati kalifikazio xehatua bide-saretik egoitzetara aldatzeko baita

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2016ko otsailaren 26an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa xehatua, zein Elorriaga menpeko toki erakundeko 42.ean dagoen lursail baten –0059-2116-2009-0006-0001-0001 katastro-erreferentzia duena– zati bati kalifikazio xehatua bide-saretik egoitzetara aldatzeko baita

ERABAKI-PROPOSAMENA

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko idatzitako proiektua ikusi da, zeina Gasteizko Elorriaga menpeko toki erakundeko 42 C-an dagoen lursail baten — 0059-2116-2009-0006-0001-0001 katastro erreferentzia duena — zati baten ingurukoa baita, hain zuzen, egun duen bide sare kalifikazio xehatua aldatu eta OR10-2 egoitzetarako erabilerakoa izatera pasatzeko, bertan den urbanizaziora doitu dadin.

Elorriaga 42.eko lursailean dagoen eraikuntza egin zenean, horrek doan utzi zizkion udalari lursail horren barruko lurrak, izan ere 1990ko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren antolamendu xehatuaren arabera zuzkidura publikoetarako ziren, eta bide publikoetarako utzi zizkion.

Gerora, eraikin hori adinekoentzako egoitza izan zedin berritu eta handitzeko obra-lizentzia eskatu zenean, udalak baldintza bat jarri zion lizentzia ematean: 2003ko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera bide-sare kalifikazioa zuten eraikin horren barruko lurrak doan uztea.

Antonio Moreira Canosa administrazio-epaitegietara jo zuen obra-lizentzia horren kontra, eta, azkenik, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 224/2014 epaiak, 2014ko apirilaren 16koa, bertan behera utzi zuen, zati batean, errekurritutako obra-lizentzia hori, bereiziki aipatutako lizentziari dagokionez.

Epaitegiak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/226 Legearen 186.2 artikulua xedatzen duenez, sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako lurzorua, baldineta jarduketa integratuetan sartuta edo haiei atxikita ez badaude, desjabetze bidez eskuratuko dira.

Ondoren, 2015eko urriaren 16an, aipatutako lursailaren jabe den Residencia Elordi SLUK, A. M. C ordezkatuak, bere lursailaren 171,70 metro koadroak egoitzetarako OR-10 kalifikazioa izateko eskatu zuen, zein indarrean dagoen 2003ko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak zuzkidura publikoetarako, bideetarako, baitziren.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Nekazaritza Eremuaren Zerbitzuak 2015eko urriaren 28an egindako txostenaren arabera, eskatutako aldaketaren xedea lursailaren kalifikazioa egungo errealitatera doitzea da, eta urbanizatutako bidea nahikoa zabala denez, izapidetzea dagokio.

Beraz, aldakuntza proiektu honek ez du Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko egiturazko antolakuntza zehaztapenik aldatzen, bertako antolamendu xehatuko zehaztapenen bat bakarrik aldatzen du.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuan honako hauek aipatzen dira: haren xedea, ekimena, haren egokiera eta beharren justifikazioa eta indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko abenduaren 4an egindako bilkuran hasierako onespenera eman zion Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldaketa horri, zein Gasteizko Elorriaga menpeko toki erakundeko 42.ean dagoen lursailaren zati bati (katastro-erreferentzia: 0059-2116-2009-0006-0001-0001) kalifikazio xehatua aldatzeko baita, hain zuzen ere egoitzetarako OR 10-2 kalifikazioa izatera pasatzeko; guztia dosierrean jaso den proiektuarekin bat.

Udalbatzaren erabaki hori 2015eko abenduaren 23ko ALHAOn (150. zk) eta 2016ko abenduaren 16ko El Correo egunkarian argitaratu zen, eta aldakuntzari buruzko dokumentazioa hilabete batez jendaurrean jarri. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak txosten juridikoa eman zuen 2016ko otsailaren 2an, eta bertan Plangintza Orokorrean aipatu den aldakuntza egiteari behin betiko onespenera ematea proposatu zuen.

Aplikagarri den legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek plan orokorraren eduki substantiboa eta hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa zehazten dituzte, eta plan orokorraren aldakuntzak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldakuntzaren xedera egokituta.

2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrietarako ekainaren 20ko 105/2008 Dekretuaren 30. artikuluan xedatuta dago plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko dela plangintza orokorraren aldakuntzaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspenera ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen —Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 123.1.i artikulua ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosierren parte diren hirigintza-agerietan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Irizpen Batzordeak udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onestea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldaketa, Elorriaga menpeko toki erakundeko 42 C tokian dagoen lursail baten –0059-2116-2009-0006-0001-0001 katastro-erreferentzia duena– zati bati kalifikazio xehatua bide-saretik OR10-2 egoitzetara aldatzeko, lursail horren jabe den Residencia Elordi SLU-k hala eskatuta.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 8an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE

